



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2016-07-12

BILERA ZENBAKIA:32

ORDUA ETA LEKUA: Itsa sondoko Udala arratsaldeko 19etan

PARTEHARTZAILEAK: 6 neska eta mutil bat

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

HARRERA PLANA

Harrera planeko lehen bileraren balorazioa: harrera planeko lehen bilera informatibora ez zen inor azaldu. Hurrengo bilera urrian izango da eta honen ondoren baloratuko da zerbait aldatu behar den ala ez.

BOKATA JANA FESTETAN

Aurreko urteko balorazioa jaso da. 2015ean 460 euro bildu ziren eta dirua ongizate lantaldeko ekintza ezberdinetan erabili da. 2016ko irailaren 17an izango da aurten bokata jana eta 150 bokadilo saltzeko aurreikuspena egiten da. Lanerako hamar bat lagun beharko dira.

Ttipi ttapan parte hartzen duten kideei irailaren 13an banatuko zaie bokadiloa dohanik hartzeko bonoa. Musika taldeari ere bokadiloa eskainiko zaio.


TTIPI TTAPA EGITASMOA NOLA SUSTATU

Soinketa ikastaroarekin oso gustora egon dira beraz urritik abendura ere ikastaroarekin jarraitzeko aukera eskainiko zaie Idoia irakaslearekin. Ttipi ttapako egokitua zegoen aurrekontua gastatu den arren, ongizate lantaldeak duen aurrekontutik bultzatuko da.

Hitzaldiei dagokionez batetik ongi lo egiteko hitzaldiren bat eta bestetik gaixotasunen ingurukoa aipatzen dira. Hauek lortzea faltako litzateke.

Tailerrak ondorengoan lotu nahi dira: batetik erorketa tailerra (Tomas Plazaolarekin harremanetan jarri), bestetik Memoria lantzeko tailerra eta azkenik Bingoa hilabeteko azken ostegunetan.

Memoria lantzeko tailerrari dagokionez, material didaktikoa badugunez, hilabeteko azken asteartetan saioak egitea planteatzen da (irailaren 27an hasita).



Saioak herriko bolondres talde batek bideratuak izatea proposatzen da.

SIRIAR ERREFUXIATUENTZAT BILKETA

Uztailaren 1ean burutu zen siriar errefuxiatuentzat bilketa, Ordiziko bilketarekin bat eginez uztailaren 2an. Balorazioa oso positiboa izan da Itsasondon, baita Ordizian ere.

Gai honen inguruko erakusketaren bat antolatzeko aukera aipatzen du lantaldeko kide batek eta irailerako lotzekotan geratu gara.

ZINEMA KALEAN

Zinema kalean egitasmoa oso modu positiboan baloratu da. Giro bikaina lortu zen aurretik elkarrekin afalduz eta pelikula ikusiz. Arrakasta ikusita, 2017an bi alditan egitekotan geratu gara.

IRAILEKO LANTALDEA

Iraileko lantaldea Irailaren 5ean astelehenean egitea adostu dugu.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Bokata jana erosketak	iraila	Jabi
Bokata jana antolatzea	iraila	Erkuden
Errufuxiatuen inguruko erakusketa	iraila	Leire
Ordiziko Jubilatuen egoitzako urteko hitzaldi eta tailerren gida	iraila	Alejandra
Emagin taldeko programa	iraila	Marijo eta Leire
Erorketa tailerra (tomas plazaola)	iraila	Erkuden

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, Irailaren 5an egingo dugu, astelehena arratsaldeko 7tan Udaletxean.

Gai ordena:

1. Bokata jatea (zerrenda eta antolaketa osatu).
2. Memoria lantzeko tailerra nola antolatu?
3. Errefuxiatuen inguruko erakusketa lotu.
4. Berdintasuna (programaren informazio zehatza bildu) eta urriarako eskolan martxan jarri.
5. Ttipi Ttapa egitasmoa indartzeko asmoz, eskutitza prestatu etxeetara bidaltzeko (85 urtetik gorakoei eta menpekotasuna dutenei).